



## Ahoaren sustatzaile eta laguntzaileen ikerkuntzako jarduera

Ahoak sustatzen duen ikerkuntza-taldea osatzen duten historiagileek nahi eta asmo partekatua dute; haien ustez gaur egungo historiografiaren alorrean funtsezkoak diren tresnak berritzeko asmoa, hain zuzen **oroitzapena, identitatea eta generoa eta haren zeregina gizarte moderno eta post-modernoan jaiotzan.**

Ikerkuntzako taldeak aitortza sendoa jaso du erakunde akademiko eta zientifikoan aldetik, I+G alorreko lehiaketa-deialdietan hainbat eta hainbat ikerkuntza-proiektu esleitu izanak erakusten duenez. Euskal Herriko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta beste erakunde pribatu batzuk urtero subentzionatu dituzte taldea osatzen duten pertsonen jarduera zientifiko eta akademikoak. Javier Diaz Freireren zuzendaritzapean, eta **kanpoko finantzazioarekin** (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa **2002-2005** urteetan, BHA2002-03880) garatu den **“La construcción histórica de la identidad y de la diferencia en el País Vasco: género, clase y nacionalidad (1876-1976)”** (“Identitatearen eraikuntza historikoa eta Euskal Herriaren berezitasuna: generoa, klasea eta nazionalitatea (1876-1976)”) ikerkuntza-proiektuaren inguruan eratu zen taldea..

Hortik aurrera, taldea handitu egin zen, ikerketaren xedea nabarmen zabaldu zela-eta: **generoari, klaseari, nazioari eta denborari lotutako identitateen** eraikuntza mende batean zehar aztertu zen, 1876tik 1976ra. Ekonomiatik eta alor sozialetik datozen beste ikerkuntza-ildo batzuek ere bat egin zuten, eta ideien eta kulturaren historiaren beste korrante batzuen ekarpenak ere jaso zituen. Gazte ikertzaileak erantsi zitzaizkion taldeari, horietako batzuen dagoeneko prestatuak eta beste batzuk prestatzeko bidean. Azkenean, ikerkuntzako taldea finkatuta dagoela esan daiteke, eta hala adierazten du **UPV/EHUK Ikerkuntzako Talde Finkatutzat aitortu izanak.**

**La experiencia de la sociedad moderna en España (1870-1980)** (“Espainiako gizarte modernoaren esperientzia (1870-1980)”) izenarekin (**COD: GIU08115**) eta Jose Javier Diaz Freireren zuzendaritzapean **13 ikertzailek, horietako 7 doktoreak**, osatutako talde bat ari da lanean (2008-1230etik 2011-11-29ra arte, **82.500 €**-ko laguntzarekin). Ia hamar urteko ibilbidearen gailurra izango den ikerkuntza planteatzen da eta bertan taldearen helburu nagusia **modernoaren muina zehaztea izango da, baina subjektuen esperientziaren ikuspuntutik.**

Taldearen **helburuen inguruko emaitza eta argitalpen garrantzitsuenak** aipatuko ditugu ondorenean.



1. Gure ikerkuntza-taldearen lehen ekarpen garrantzitsua *La construcción histórica de la identidad: género, clase y nacionalidad en el País Vasco y en España (1876-1975)* proiektua izan zen ("Identitatearen eraikuntza historikoa: generoa, klasea eta nazionalitatea Euskal Herrian eta Espainian (1876-1975)"). Ikuspegi postestrukturalista edo diskurtsibo batetik, **klase-, genero- eta nazio-identitateak zein konplexutasunez artikulatzen** diren aztertu zen. Eraitza garrantzitsuenak Estatu mailako nahiz Nazioarteko hainbat Kongresutan hizlari izateko gonbidapenetan gauzatu dira, bai eta Espainiako eta nazioarteko historiografian eragin handia izan duten hainbat liburu eta artikulutan ere. Horietako batzuk nabarmentzearren:

1. Taldeko kideek egindako **genero-azterketek historiografia anglosaxoiaren interesa** piztu dute, eta **Nerea Arestiren** bi artikulua argitaratu dituzte nazioarte mailan aitortza handienetakoa duten bi aldizkaritan, ISIn indexatuak: "Shaping the Spanish Modern Man. The Conflict of Masculine Ideals through a Court Case in the 1920s", **Feminist Studies** 33, 3. zenbak., 2007, 606-631 orrial., eta "The Gendered Identities of the 'Lieutenant Nun'. Rethinking the Story of a Female Warrior in Early Modern Spain". **Gender & History** aldizkaria, 19. alea, 3. zenbak., 2007ko azaroa, pp. 401-418 orrial.
2. **Nazio- eta genero-identitatearen** inguruko azterketak M. Llonaren txostenean gauzatu da: "Mujer/madre ¿un binomio inseparable?. Madres de la patria del nacionalismo vasco, 1919-1939" ("Emakumea/ama: binomio banaezina? Euskal Nazionalismoaren aberriaren amak, 1919-1939"). Tel-Aviveko Unibertsitateak "Emakumeen Protagonismoa XIX. eta XX. mendean Espainian eta Latinoamerikan" izenburupean 2006ko otsailean antolatutako Biltzarrera gonbidatu zuten Llona hizlari izateko, hogeita hamarreko hamarkadan Emakume Abertzale Batzako kide izan ziren emakumeen euskal nazio-identitatearen azterketa egiten duen azterketa hori jorratzera. Emakumeei buruzko diskurtso nazionalistaren azterketa egin dute Miren Llonak eta Nerea Arestik, Aurelio Arteta euskal margolariaren irudiak oinarri hartuta. "**Las mujeres imaginadas de Aurelio Arteta. Imágenes femeninas e ideologías políticas (1898-1937)**" ("Aurelio Artetaren imajinatutako emakumeak. Emakume irudiak eta ideologia politikoak (1898-1937)") izenburua dauka azterlan horrek, eta "Representación, Construcción e Interpretación de la Imagen Visual de las mujeres" liburu kolektiboan argitaratu zen (Madril, Archiviana argital., 2003, 319-340 orriald.).
3. Nerea Arestik eta Miren Llonak antolatu zuten identitateei buruzko AEIHMren XIII. Nazioarteko Mintzaldia, 2006ko irailean. Biek txosten nagusian aurkezturiko lana liburu batean argitaratu zen: "**Memoria e identidades. Balance y perspectivas de un nuevo enfoque historiográfico**" BORDERÍAS, Cristina (argital.), La Historia de las Mujeres: perspectivas actuales, Editorial Icaria, Bartzelona, 2008, 355-390 orrial.



4. **Gizarte modernoa genero-ikuspuntua batetik ulertzeko** modu berri baterako proposamena gauzatu da Mercedes Arbaiza Vilallongak "Modernización en el País Vasco y Navarra (ss.XIX-XX)" liburuan kaleratutako "A propósito de la familia moderna en el País Vasco" ("Euskal Herriko familia modernoaren inguruan) lanean (Universidad de Navarra argital., Iruñea, 2004). Lan hori Nafarroako Unibertsitateak Euskal Gaien inguruan antolatutako Mintegian emaniko eztabaidaren emaitza izan da.

2.- Ikerkuntza-taldearen beste ekarpen garrantzitsu bat **kultura-ikuspegia gertakizun ekonomikoaren esparruan txertatzea** izan da ("**social choice**" lana). Horrek gizarte-ekintzaren teoriarik ondorio garrantzitsuak izan ditu, paradigma estrukturalista oro zalantzan jartzen baitu, erakutsiz gertaera ekonomikoak ez direla ontologikoki kultura-gertakizunaren aurrekoak eta ekonomikoaren ustezko objektibotasuna ez dela horrenbestekoa, diskurtso-eremu batek zeharkatzen duelako edo haren baitan hartzen duelako esangura. Emaitza horien adibiderik garrantzitsuenak honako artikulua hauek izan dira:

- C. Sarasuak eta L. Galvezek zuzendutako "**Privilegios o eficiencia? Mujeres y hombres en el mercado de trabajo**" liburuan **M. Arbaizak eta P. Perez Fuentesek** kaleratutako artikulua (**Universidad de Alicante, 2003**). Espainiako Unibertsitateetako historia ekonomikoaren ikasgaiaren gomendatutako liburuetako bat da. "Arenal" aldizkariaren argitaletxeak eskatuta, Mercedes Arbaizak "La construcción social del empleo femenino en España (1850-1935)" ("Espainiako emakumeen enpleguaren gizarte-erakuntza (1850-1935)") idatzi zuen (9. alea, 2. zenbak. 215-239 orrial.).
- Ikertzaile bera hizlari gonbidatu dute AEIHMren III. Mintegira (Madril, 2009), kategoria ekonomikoaren kritika epistemologikoa egitera: "**La construcción genérica de lo material en las sociedades contemporáneas**" ("Materialaren eraikuntza generikoa gizarte garaikideetan"). Gainera, nazioartean izan duen islagatik eta unibertsitate-arteko lankidetzaren ondorioa izan delako, Pilar Perez Fuentesek, Cristina Borderias eta Carmen Sarasuarekin batera, 2007an Bartzelonan 3. saioan (Production and distribution of Well-Being into the Family: Strategies of Remunerated and Non Remunerated Labour and Consumption Patterns) aurkezturiko "The Gender Gap in consumption, Spain 1850-1930" txostena ere aipatu behar da.

3.- **Genero- eta klase-identitateak artikulatu diren forma historikoari** lotuta, emaitzak honako artikulua eta txostenetan gauzatu dira:



- M. Llona, "Sobrevivir a la mina: mujeres, pobreza y cambio social" ("Meatzean bizirik iraun: emakumeak, pobrezia eta gizarte-aldaketa"), Ahozko Historiaren XIII. Nazioarteko Batzarrean: Oroimena eta Globalizazioa; Erroma, 2004. **Femenotasunaren eredu** artean eta **emakume langileek aurre egin behar zieten** eskaera existentzialen artean zeuden kontraesanak aztertzen dira bertan. Irakur Miren Llonaren "Mujeres de hierro: identidad de género y clase obrera. El País Vasco, primer tercio del siglo XX" ("Burdinazko emakumeak: genero-identitatea eta langileria. Euskal Herria, XX. mendeko lehen herena"), "Historia, Antropología y Fuentes Orales", 34. zenbak., 2005.
- Emakumeen pobrezia eta langile-klasearen identitatearen eraikuntzaren inguruko azterketa-eremu berri bat aztertu da "La Prostitución y la clase obrera en el tránsito del siglo XIX al XX. Un análisis de género a la obra literaria de Julián Zugazagoitia" ("Prostituzioa eta langileria XIX. eta XX. mendeen pasarteetan. Julian Zugazagoitiaren lan literarioaren genero-azterketa") azterlanean, Historia Contemporanea aldizkarian 2008an kaleratua.

4.- Taldeak **oroimenaren, genero-identitatearen eta historiaren arteko harremanetan** sakondu du. Miren Llonaren *Entre señorita y garçon. Historia oral de las mujeres bilbaínas de la clase media. 1919-1939* ("Andereño eta garçon artean. Bilboko klase ertaineko emakumeen ahozko historia. 1919-1939") liburuak (Universidad de Málaga, Málaga, 2002), mugarria ezarri du Espainiako historiografian. Lan horrek Victoria Kent ikerkuntzako saria jaso zuen eta oroimenera eta **ahozko historiako** testigantzetara eraginkortasun handiagoz iristeko, **metodologian eta interpretazio-ikuspegiari aldaketak** egiteko beharra azpimarratzen du. **Los argumentos de la identidad y de la memoria en el País Vasco (1877-1935)** ("Identitatearen eta oroimenaren argudioak Euskal Herrian (1877-1935)"), Euskal Herriko Unibertsitateak finantzaturako ikerkuntza-proiektuak (2002-2004) proiektu horren ikertzaile nagusiaren lan garrantzitsuenetako bat ekarri zuen. *El arte de la entrevista de Historia Oral. Metodología* liburuan (Buenos Aires, 2010) Miren Llonak idatzirik kapituluak: **"Archivar la memoria, escribir la historia. Reflexiones en torno a la creación de un Archivo de Historia oral. AHOA, Ahozko Historiaren Arxiboa. Archivo de la Memoria"** ("Oroimena artxibatu, historia idatzi. AHOA, Ahozko Historiaren Arxiboaren sorreraren inguruko hausnarketak") adibide ederra da oroimena aztertzeko elkarriketetan taldeak duen proiektzioa ikusteko. Ikerkuntzako ahalegin hori beste hainbat txosten eta artikulu azpimarragarritan ere gauzatu da:

- "Historia, Memoria y Oralidad" txostena ("Historia, Oroimena eta Ahozkotasuna") Historia, Ahozko eta Ikusizko Iturriei buruzko Nazioarteko Biltzarrera gonbidatu zuten, 2005ean. M. Llona: "Memoria, identidades e historia. Algunas cuestiones a debate" ("Oroimena, identitateak eta historia. Eztabaidagai zenbait"), "Historia en Obras. Memoria y subjetividad" izenburuko



- AEIHMren III. Nazioarteko Mintegian, Historia Ikertzeko Emakumeen Elkarte Espainiarraren eskutik, Madrilén 2009an.

-

- "Los diálogos de la historia oral con el tiempo presente" ("Ahoazko historiaren eta orainaldiaren arteko elkarrizketak"), UPV-EHUren Udako XXVII. ikastaroetara gonbidatutako txostena, Donostia, 2008ko uztaia.

5. Eraitza garrantzitsuak izan dituen bosgarren ardatza identitate kolektiboen sorreraren inguruko **berrikuntza teoriko eta metodologikoari** lotuta dago. Zehatzago, **Identitateen emoziozko eta gorputzezko dimentsioari** lotuta.

Atal honetan, azpimarratu egin behar da identitatearen esanahiaren berrikusketaren ondorioz, interpretazio-esparru horretan erabilitako kategorietako batzuk ere berrikusi direla. Hala, adibidez, Joan Scott historiagilearen lanaren berrikusketari esker eta **genero-kontzeptuaren** operatibotasunaren inguruko hausnarketa eta haren esanahia historiatu izanaren ondorioz, eraitza argigarriak izan dira historiaren eta gizarte-ekintzaren teorian, Nerea Arestik argitaratu duenez (**Nerea Aresti, "La obra de Joan W. Scott y los debates historiográficos actuales"**, "Joan Scott y la historiografía feminista en España" liburuan, Editorial Icaria, 2006). Egileak ikerkuntza-ildo horri garatzen du "Masculinidades en tela de juicio" liburuan, Cátedra argitaletxea, Valencia, 2009. Azpimarratu beharreko beste lan bat, "La categoría 'mujeres en el feminismo decimonónico'" (" 'Emakumeak' kategoría 1890eko hamarkadan") da. Universidad de la Lagunako Historia Departamenduak antolatutako "Historiaren egoera" XII. Mintegian txosten gonbidatua izan zen (Tenerife, 2008ko azaroa).

"El contenido de la identidad. Las identidades en el País Vasco contemporáneo" ("Identitatearen edukia. Identitateak Euskal Herri garaikidean") ikerkuntza-proiektuan (UPV-EHU, 2006-2008), **genero-identitatea esperientziaren kontzeptuari lotuta** arakatu da. Subjektuak bizi izandako esperientzia emozionalak nola barneratzen diren behatuta, subjektuaren eraikuntza aztertzeko beste bide bat proposatzen da, azken batean horietan direlako haren identitate-ibilbidearen oinarriko zatiak. Horien **emoziozko eta "gorputzezko" dimentsioak barneratzeko ahalegina** planteatzen dugu. Datozen urteotan sakondu nahi dugun helburu hori dagoeneko hainbat alderditatik aztertuta dago.

Ikuspuntu teoriko-metodologiko honetatik egindako ekarpen nagusietako bat ohiko ikuspegi mugak gainditzera bideratuta egon da. Horretarako, gizarte-zientzietan "hizkuntza-itzuliaren" idealismorako arriskuen aurrean, irtenbide teoriko bat bilatzen da. **Javier Díaz Freire** ikerlariak hainbat lan egin ditu diskurtsoaren paradigma (eranstearren paradigmarekin behintzat osatzeko -embodiment- premia duen diskurtsoaren paradigma) berrikusketaren inguruan. Ikerketen norabidea oinarritzeko,



fenomenologian eta humanismoan sakontzen da, biek ere antzeko kritikak egiten baitzkiote ohiko metafisikari, eta hizkuntzak historiaren eraikuntzan duen zeregina berriro aztertzen lagun dezaketelako. Haren ideiarik garrantzitsuenak honako artikuluhauetan argitaratu dituzte:

- Jose Javier Diaz Freire, "Cuerpos en conflicto. La construcción de la identidad y la diferencia en el País Vasco a finales del siglo XIX" ("Gorputz-gatazka. identitatearen eraikuntza eta berezitasuna Euskal Herrian XIX. mendean"), "El desafío de la diferencia. Representaciones culturales e identidades de género, raza y clase" liburuan, Mary Nash eta Diana Marra argitaratzaileak, Servicio Editorial del País Vasco, Bilbo, 2003, 61-94 orrial.
- José Javier Díaz Freire, "El cuerpo de Aitor. Emoción y discurso en la creación de la identidad nacional vasca" ("Aitorren gorputza. Emozioa eta diskurtsoa euskal nazio identitatearen sorreran"), Historia Social, 40. zenbak. Imajinatutako komunitateen eta nazionalismoaren gaia aztertzen duen ale monografikoa antolatu zutenek eskatu zioten artikuluhori.

**Ikerkuntza-taldea gorputzaren eztabaiden inguruko erreferentzia** bihurtu dela frogatzeko, Arenal aldizkariko erredakzio-batzordeak gai horri buruzko ale monografikoa enkargatu izana aipatuko dugu. Nerea Arestik eta Miren Llonak **Revista Arenal. Revista de Historia de las Mujeres** aldizkarian (14/1 alea, 2007) "**Cuerpo, discursos e identidades**" ("Gorputza, diskurtsoak eta identitateak") gaiari buruzko monografiko bat kaleratu zuten, eta tartean bi ekarpen esanguratsu daude: Miren Llonaren "Los otros cuerpos disciplinados. Relaciones de género y estrategias de autocontrol del cuerpo femenino" ("Beste gorputz diziplinatuak. Genero-harremanak eta emakumearen gorputza autokontrolatzeko estrategiak") (79-108 orrial.) eta Jose Javier Diaz Freireren "Cuerpo a cuerpo con el giro lingüístico" ("Gorputzez gorputz itzuli linguistikoarekin") (5-29 orrial.)